

Francisco Aldanondo Badiola

Wikipedia(e)tik

Hona jo: [nabigazioa](#), [Bilatu](#)

Francisco Aldanondo Badiola	
Datu pertsonalak	
Izen osoa	Francisco Aldanondo Badiola
Ezizena	<i>Fran, Ondarru</i>
Jaio	1949ko irailaren 7a Ondarroa (Bizkaia)
Hil	1979ko urriaren 17a Izaskun (Gipuzkoa)

Francisco Aldanondo Badiola, ([Ondarroa](#), [Bizkaia](#), [1949](#) - [Izaskun](#), [Gipuzkoa](#), [1979ko urriaren 17a](#)) [ETA](#) eta [Komando Autonomoak](#) erakunde armatuetako kidea izan zen. 1977ko Amnistia dekretuaren ostean kalera irten zen azken euskal preso politikoa izan zen. 1979ko urriaren 17an Guardia Zibilak Izaskungo baserri batean inguratu eta ihes egiten saiatzean tiroka hil zuten.

Eduki-taula

[[ezkutatu](#)]

- [1 Gaztaroa](#)
- [2 ETAko militantea](#)
- [3 Azken euskal preso politikoa](#)
- [4 COPELein bat](#)
- [5 Ondarroako harrera](#)
- [6 Komando Autonomoetako militantea](#)
- [7 Heriotza Izaskunen](#)
- [8 Azken agurra](#)
- [9 Erreferentziak](#)
- [10 Kanpo loturak](#)
- [11 Bibliografia](#)

Gaztaroa[[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

Hiru seme-alabetako bigarrena izan zen. 1952an aita itsasoan hil zitzaizenean [San Lucar de Barramedako](#) Itsasoko Umezurtzen Eskolan ikastera bidali zuten. Gero, [Madrilen](#) aldi batez josulagunen eskola batean izan ondoren, Arrasateko Irakasle Eskolan jarraitu zuen ikasten. Ondarroako [Aurrera futbol taldean](#) jokatu zuen. Eta 19 urtekin hasi zen lanean, Ondarroako kaian. Gerora [Markinako Esperanza y Cia](#) arma fabrikari egingo zuen lan, torneoan..

ETAko militantea[[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

1972. urtearen inguruan sartu zen ETA erakundean. Hasiera batean propagandan jardun zuen batez ere. 1975eko apirilaren 25ean Guardia Zibila etxera joan zitzaion, atxilotzeko asmoz. Franek leiho batetik ihes egin eta Iparraldera jo zuen. ETA (pm) erakundeko Komando Berezieta jardun zuen.

1977ko martxoaren 8an poliziak atxilotu zuen [Itsason](#): auto batean zihoazela, Poliziak kontrol batean geldiarazi eta tirokatu zituzten. [Sebas Goikoetxea](#) eta [Nikolas Mendizabal](#) Zaharra hil eta Aldanondo zauriturik atxilotu zuten^[1].

Azken euskal preso politikoa[[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

Espainiako Gobernuak 1977an emandako Amnistia dekretuan kalera atera zen azken euskal preso politikoa izan zen. Mobilizazio ugari eman ziren, Ondarroan batez ere, eta azkenik abenduaren 9an kaleratu zuten^[2].

COPELekin bat[[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

Espetxean preso sozialen eskakizunetan inplikatu eta [COPEL](#) elkartearekin bat egin zuen. Besteren artean, protesta batean, koilaratxo batzuk irentsi zituen.

[Martutenetik](#) irten zenean ETA eta COPEL-en pegatina bana zeramatzan paparrean. Bertan egin zituen adierazpenetan argi ikus daiteke bere jarrera: “Ez du axola azpen preso politikoa izatea. Oraindik preso sozialak falta dira, marjinauak; lanerako amnistia eta erbesteratuak itzul daitezen segurtasuna ere falta dira. Batzordeetan lanean jarraituko dut, baita COPEL laguntza batzordean ere amnistia osoa, askatasun osoa, Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa lortu arte”^[3].

Ondarroako harrera[[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

Ondarroan harrera jendetsua egin zioten: milaka lagun bildu ziren Aldanondori ongi etorria egiteko^[4]. Aldanondok omenaldia eskertu ondoren gogoan izan zituen Sebas eta Zaharra, iheslariak, preso sozialak eta borrokan hildako guztiak. Minutu bateko isilunea egin zuten hauen oroimenez, eta [Eusko Gudariak](#) abestu zuten.

Partaide batek esan zuen: “Amnistia ez da osoa oraindik. Azkena irten da, baina nork bermatzen du gaur edo bihar bertan preso gehiago egongo ez direna?”. Hurrengo egunean, Ondarroan bertan lagun bat atxilotu zuten, megafoniatik Gora ETA esateagatik. Libre utzi zuten, baina handik gutxira espetxeak berriro betetzen hasiko ziren^[5].

Komando Autonomoetako militantea[[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

Kalera irten eta gero Donostira joan zen bizitzera.

1978 erdi aldera komando autonomo batean sartu zen, Martuteneko espetxean elkarrekin izandako [Francisco Javier Larrañaga](#) “Peru” azkoitiarrarekin batera.

Heriotza Izaskunen[[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

1979ko urriaren 17an Guardia Zibilak [Tolosatik](#) hurbil dagoen [Izaskun](#) auzoko Maita Goikoa baserrian inguratu eta ihes egiten saiatzean tiroka hil zuten. Gorpuak hamabost bala zulo zituen, gehienak bizkar aldean^{[6][7]}.

Guardia Zibilaren 522. Komandantziaren agiriaren arabera, Aldanondo “ihes egiten saiatu zen leiho batetik ateraz, eta granada bat jaurti zuen, Gorputzeko agente batzuk baserria miatzen ari zirela irrati-igorle ezkutu baten bila”.

Lekukoek beste bertsioa eman zuten. Horien arabera Aldanondo poliziak ikusita baserriko atzeko atetik irten zen, armarik gabe, eta poliziek tiro egin zioten. Zaurituta, aldapatik behera erorita, bertatik bertara tirokatu zuten^{[8][9]}.

Nortasun Agiria aldean eduki arren Gobernuak ez zuen haren nortasuna adierazi, [Egin](#) egunkariak publiko egin zuen arte.

Azken agurra[[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

Mobilizazio ugari egin ziren Fran Aldanondoren hilketa salatzeke^{[10][11]}. Ondarroan Herri Batzarrak antolatuta greba orokorra egin zen urriaren 19an^[12]. Hiletetara 6.000 lagun baino gehiago gerturatu ziren, [Eusko Gudariak](#) batera [Lepoan hartu ta segi aurrera](#) kantatzeko. Hileta elizkizunetan Ondarroako abadeak galarazi egin zuen ikurrina hilkutxan jartzea eliza barruan. Hiru eguneko lutoa gorde zen herrian^[13].

Erreferentziak[[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

- ↑ [Duelo en Gipuzkoa por la muerte de dos militantes de ETA](#) El Pais 1977.03.10
- ↑ [Ondarroa recibirá mañana a Fran Aldanondo](#) Egin 1977.12.10
- ↑ [Seguiré luchando en la Gestoras y en COPEL](#) Egin 1977.12.10
- ↑ [Ondarroa: Triunfal recibimiento a Aldanondo](#) Egin 1977.12.13
- ↑ [Gran recibimiento de Ondarroa a Aldanondo](#) Egin 1977.12.13
- ↑ [Fran Aldanondo muerto por la Guardia Civil en Tolosa](#) Egin 1979.10.18
- ↑ [Presunto miembro de un comando autónomo muerto por la Guardia Civil](#) Egin 1979.10.18
- ↑ [Amnistia y muerte de Fran Aldanondo](#) Egin 1979.10.19
- ↑ [Amnistia y muerte de Fran Aldanondo \(2\)](#) Egin 1979.10.19
- ↑ [Masivo y silencioso recibimiento a Fran](#) Egin 1979.10.19
- ↑ [Hoy en Ondarroa, huelga y funeral por Fran Aldanondo](#) Egin 1979.10.19
- ↑ [Ondarroa paró totalmente](#) Egin 1979.10.20
- ↑ [Impresionante despedida de Ondarroa a Fran](#) Egin 1979.10.20

Kanpo loturak[[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

- [Francisco Aldanondo Badiola](#), Voluntarios.Semillas de libertad. *Ricardo Zabalza*. Txalaparta, 1984.

- [Francisco Aldanondo Badiola](#) Euskal Memoria
- [Azken Preso Politikoa](#) Berria 2012.03.25

Bibliografia[\[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

- Euskadi eta Askatasuna. [Txalaparta](#). Tafalla, 1984. [ISBN 84-86597-87-0](#)
- Voluntarios. Semillas de libertad. *Ricardo Zabalza* [Txalaparta](#). Tafalla, 1984. [ISBN 84-8136-165-8](#)